

ELA eta LAB sindikatuen MOBILIZAZIO DINAMIKA

OTSAILAREN 28an LANUZTEAK EAEko UDAL eta FORU ADMINISTRAZIOKO ERAKUNDE GUZTIETAN

Pasa den abenduan iragarri genuen bezala, sektore honetan azken urteotan lanpostu asko galdu dira, egin diren kontratuak behin-behinekoak dira, zerbitzu asko pribatizatu dira hauen kalitatea eta langileen baldintzak nabarmenki okertu direlarik eta eroste ahalmen handia galdu dugu langileok.

Horrela, EUDELek berak onartzen duenez, behin-behinekotasunak %36a gainditzen du, eta langileok ikusi dugu nola gure eroste-ahalmena %10 baino gehiago murriztu den.

Pasa den abenduan bertan egin genituen mobilizazioak Elkargoko hiru Aldundien aurrean. Tamalez, gauzak ez dira aldatu. Alderdiek ez diete erantzunik eman gure aldarrikapenei, ez dute esan EUDELek duen jarrerarekin bat datozen edo kudeatzen dituzten erakundeetan Udalhitz hitzarmena betetzeko asmorik duten. Horrela, ulertu behar dugu isiltasun horrek adostasuna erakusten duela eta langileok berdin segituko dugula.

Egoera honen aurrean, eta abenduan aurreratzen genuen bezala, erabaki dugu mobilizazioekin jarraitzea eta, gainera horien maila igotzea: hala, **hurrengo otsailaren 28an lanuzteak eginen ditugu EAEko udal eta foru sektoreko erakunde guztietan. Hain zuzen ere, 4 orduko lanuztea egingo dugu (11etatik 15ak arte, goizeko txandan; eta 15etatik 19ak arte, arratsaldekoan).**

Egun horretan bertan mobilizazioak eginen ditugu hiru hiriburuetan eta zenbait eskualdetako buruetan.

Aldarrikapenak, iragarri bezala, hurrengoak dira:

- **Zerbitzu publikoak garatu. Ematen ditugun zerbitzu publikoak defendatu eta garatu, pribatizazioak geldituz. Pribatizaturiko zerbitzuetan langileen lan baldintzak duindu eta klausula sozialak landu.**
- **Enplegu Publikoaren alde: Suntsitutako enplegua berreskuratu eta behin-behinekotasun tasak %6ra jaitsi, akordioak betez. Lanpostuak egonkortu eta sortu. Eta betetzeko Langile batzordeen gehiengoarekin adostutako LEPak deitu.**
- **Negoiazio kolektiboaren eskubidea berreskuratu: Galdutako eskubideak eta eros-ahalmena berreskuratu.**

Eta berauek lortzeko dei egin nahi diegu langile guztiei 28an LANUZTEAN eta mobilizazioetan parte hartzeko, bakarrik mobilizazioen bidez lortuko baitugu egoerari buelta ematea.

**KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOEN ALDE, ENPLEGU PUBLIKOAREN ALDE ETA GURE
ESKUBIDEAK BERRESKURATZEAREN ALDE.**

LOTU BORROKARI!

DINÁMICA DE MOVILIZACIONES DE ELA Y LAB

PAROS EN TODAS LAS INSTITUCIONES DE FORAL Y LOCAL EL 28 DE FEBRERO

Como anunciamos el pasado diciembre, en este sector se han perdido muchos puestos de trabajo en los últimos años, los contratos que se hacen son temporales, se han privatizado muchos servicios empeorando la calidad de los mismos y las condiciones de trabajadoras y trabajadores y hemos perdido mucho poder adquisitivo.

Así, como reconoce EUDEL, la temporalidad es superior al 36%, y trabajadoras y trabajadores hemos visto mermar nuestro poder adquisitivo en más del 10%.

El pasado mes de diciembre nos movilizamos ante las tres diputaciones de la comunidad autónoma. Desgraciadamente, las cosas no han cambiado. Los partidos no han dado respuesta a nuestras reivindicaciones, no han dicho si están de acuerdo con la posición de EUDEL o si tienen intención de aplicar Udalhitz en las instituciones que gestionan. Así que tendremos que entender que ese silencio conlleva conformidad y que seguiremos igual.

Ante esta situación, como adelantábamos en diciembre, hemos decidido seguir movilizándonos, y además subir la intensidad: así, el próximo 28 de febrero haremos un paro en todas las instituciones del sector foral y local **de la EAE. Concretamente, cuatro horas de paro (de 11 a 15 horas, en turno de mañana; y de 15 a 19 horas, en turno de tarde).**

Ese mismo día llevaremos a cabo movilizaciones en las tres capitales y en la cabecera de algunas comarcas.

Nuestras reivindicaciones, como anunciamos, son las siguientes:

- **Impulsar los servicios públicos. Defender y desarrollar los servicios públicos que damos, parando las privatizaciones. En los servicios privatizados dignificar las condiciones y aplicar cláusulas sociales.**
- **Por el Empleo Público: recuperar el empleo destruido y bajar la temporalidad al 6%, cumpliendo con los acuerdos. Estabilizar los puestos y crear nuevos. Y convocar OPEs acordadas con las mayorías de los comités para llenar las plazas.**
- **Recuperar el derecho a la Negociación Colectiva: recuperar los derechos y poder adquisitivo perdidos.**

Y para conseguirlo queremos llamar a todas las trabajadoras y trabajadores del sector a participar en el PARO Y MOVILIZACIONES del día 28, porque solo movilizándonos conseguiremos dar la vuelta a la situación.

POR UNOS SERVICIOS PÚBLICOS DE CALIDAD, POR EL EMPLEO PÚBLICO Y POR LA RECUPERACIÓN DE NUESTROS DERECHOS.

LOTU BORROKARI!